

**EUSKADIKO FILMATEGIAREN 40 URTE
40 ANIVERSARIO DE LA FILMOTECA VASCA**

2018-03-28 Donostia/San Sebastián 28-03-2018

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Egun on guztioi.

Gaur, 40 urte hauetan, Filmategiak egin duen, egin duzuen, lana eta ekarpena eskertzeko elkartu gara.

Euskal zinemagintza gure herria, kultura eta nortasuna ezagutzeko aukera ematen digu. Gure filmetan herriaren memoria dago gordeta eta, gure baitan duguna, beste modu batez ikusteko eta ezagutzeko aukera ematen digu. Ondare hori guztia gauden leku honetan topa dezakegu, Euskadiko Filmategiak gordeta eta zainduta, beti iraganari eta etorkizunari begira.

Filmategian sartu eta “Au Pays des Basques”-en kartela ikusi dugu, hau da euskara entzuteko aukera eman zigun lehen ikus-entzunezkoa. Beheko artxiboetan egungo euskal filmen afixak ikusi egin ditugu, gure zinemak bizi duen garai goxoaren adierazle nabarmena. Bi irudi hauen artean gure zinemaren historia daukagu, Filmategiak azken 40 urte hauetan jaso, atondu eta erakutsi duena.

Ikus-entzunezko ondarea biltzea, zaharberritzea, mantentzea, erakustea, ikertzea, eskaintzea. Horiek ziren Euskadiko Filmategiaren helburuak jaio zenean eta horiek dira oraindik ere. Gaur xede hauen garrantzia eta egindako lanaren emaitza azpimarratu eta eskertu nahi ditugu.

Hoy agradecemos vuestra labor constante y tenaz durante estos 40 años. Celebramos este puente entre el pasado y el futuro que nos ofrece la Filmoteca vasca. Compartimos los retos de futuro que habéis priorizado:

- Seguir mejorando la accesibilidad de nuestros fondos;
- Enriquecer nuestras colecciones;
- Responder a los desafíos y oportunidades de la era digital;
- Poner en valor la cinematografía vasca; y
- Transmitir y proyectar la cultura cinematográfica.

Compartimos la determinación de invertir hoy en la preservación de nuestro patrimonio cinematográfico, conscientes de que esta es una aportación esencial a la cultura vasca del mañana.

Euskadiko Filmategiaren 40garren urteurrenarekin batera, KIMUAK proiektuak ere 20 urte betetzen ditu. Bi urtemuga hauek ospatzen ditugu eta, horrela aitortu behar dugu, gure zinemagintzak momentu bereziki goxoa bizi du.

Ez da kasualitatea, ereindako lanak emandako fruitua da. Urteetan zehar, gure zinegileen talentua babesteko eta garatzeko politika publikoak sustatu dira. Hori lortzera bideratutako erakundeak eta proiektuak jarri dira martxan. KIMUAK horietako bat izan da, nabarmenenetako bat.

Los 20 años de crecimiento continuo del proyecto KIMUAK tienen relación directa con la eclosión actual de una generación de gran talento en Euskadi. Esta “generación Kimuak” integra profesionales de la creación, la producción y el servicio técnico. Esta generación está dando respuesta a tres aspiraciones históricas de nuestro cine:

- fortalecer la presencia profesional de la industria en Euskadi, frente al “éxodo a Madrid”;
- avanzar en la proyección internacional; y
- asentar el trabajo profesional en euskera.

El cine vasco está logrando superar la prueba internacional, también en euskera, y se ha convertido en uno de los referentes de la proyección de nuestra cultura en el exterior. Seguir respondiendo a estos retos merece todo nuestro apoyo y colaboración.

Gure zinemaren nazioartekotzea zabaltzen jarraitu behar dugu. Filmategia, Kimuak, Zinemaldia, Etxepare, Elías Querejeta Zine Eskola, Zineuskadi, etorkizuneko erronkei erantzuteko tresnak dira. Helburu berberak ditugu eta “auzolana” erakunde hauen, zuen, berezko ezaugarria da.

Hau guztia Tabakaleratik egingo dugu, gero eta indar gehiago hartzen ari den kultur ekosistema honetatik. Elkarrekin gaude gure zinema eta kultura sustatzen eta zabaltzen jarraitzeko.

Gaur beraz, zorionak guztioi eta urte askotarako!